

Kostuen egitura

Badakigu gure erakundea aurrera eramateak kostu anitz izango dituela, batez ere hasieran. Erakundea aurrera ateratzeko hasieran jarri beharko dugun inbertsioaz gain, badakigu hainbat kosturi aurre egin behar izango diegula. Esan dezakegu kostu hauek bi motatan sailkatzen direla bereziki, kostu finko eta kostu aldakorretan hain zuzen ere.

Hasierako inbertsioareninguruan pixkat gehiago sakonduz, aipatzekoa iruditzen zaigu Hasierako inbertsioa kontuan hartuta, badakigu zaila izango dela kostuei aurre egitea, hasieran ez ditugulako diru sarrera handirik edukiko eta guk jarritako kapitala galtzeko arriskua izango dugulataz ere ohartzen gara. Baina, dena espero dugun moduan joan izanez gero, hasieran jarriko genukeen kapitala pixkanaka berreskuratuko dugulakoan gaude. Beraz, irabaziak izaten hasten garenean errazagoa egingo zaigu erakundeak izango dituen kostuei aurre egitea.

Kostuetan sakonduz, lehen aipatu dugun bezala, bi motatako kostuak nabarmentzen dira: finkoak eta aldakorrak.

Gure erakundearen kasuan, kostu finkoak hainbat izan daitezke, esaterako: hurrekin saioak egiteko beharrezkoa izango dugun materiala, langileei hilero ordaindu beharreko soldata, gure web gunea mantetzeak dakartzan kostuak, argia. ura... etab.

Kostu aldakorren kasuan ere, hainbat izan daitezke, esaterako: erakunderako beharrezkoak izango ditugun material ezberdinak, pegamentua eta kartulinak adibidez.